Kontratatzen duena Amorebieta-Etxanoko Udala da, Tokiko Administrazioko izaera juridiko publikoa duena.

Kontratazio organoa Amorebieta-Etxanoko Udaleko alkatea da, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen bigarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera. Honen arabera, 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Europako Parlamentuko eta Kontseiluko zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikoari gehitzen zaizkio.

2- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea izango da "LATZEN" taldea kontratatzea kontzertu baterako 2026ko uztailaren 17an, 23:00etan, Amorebieta-Etxanoko jaietarako instalatutako agertoki nagusian, espedientean agertzen den baldintza teknikoen agirian ezarritako baldintza eta zehaztapenekin bat etorriz, honek kontratu izaera izango duelarik.

CPV kodea: 92312000-1 Zerbitzu artistikoak

3- EGIKARITZAPEN EPEA

Kontratua 2026ko uztailaren 17an gauzatuko da. Kontratatutako jardueraren iraupena ez da izango baldintza teknikoen agirian aurreikusitakoa baino laburragoa.

4.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren aurrekontua, lizitazioaren oinarri izango dena, hau da:

Lizitazio-aurrekontua	35.090,00 €
Prezioa	29.000,00 €
% 21eko BEZ	6.090,00 €

Lizitatzaileek zenbateko hori hobetu ahal izango dute, kontratu honen xede diren lanak egiteko beharrezkoak diren kostu guztiak barne daude, besteak beste, langileen ordainsariak, dietak, ostatua, garraioa eta bidaiak, eta esleipendunak izango du horien gaineko erantzukizun osoa. Era berean, bere kargu sozialen eta fiskalen formalitateen eta

Baliozkotze Kod.: 54TYF4JKYZEFLG64LT2NW2PEJ
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 24

likidazioen erantzule izango da, bai eta bere langileak lan-istripuetarako erakunde batekin aseguratzearen erantzule ere.

Kontratuaren gutxi gorabeherako balioa, SPKLren 101. artikuluaren arabera, ondokoa da: **29.000 €**.

5.- FINANTZAZIOA

Kontratu honi dagokion gastua 3381 22704 aurrekontu-partidako kreditu erabilgarriaren bidez finantzatuko da.

6.- ORDAINTZEKO MODUA

Kontratistak, hitzartutako prezioen arabera, sinatutako kontratuaren eta honi egindako aldaketen arabera eta Administrazioak emandako aginduen arabera, benetan egindako lanengatik ordaindua izateko eskubidea du.

Prezioaren ordainketa SPKLren 198.4 artikuluan aurreikusitako epean egin beharko da. Ordainketaren aurretik, zerbitzua behar bezala gauzatu dela egiaztatuko duen agiria aurkeztuko da, eta hari oniritzia eman beharko zaio.

Faktura elektronikoak egiteko beharrezkoak diren DIR 3 kodeak hauek dira:

Kontabilitate bulegoa	Amorebieta-Etxanoko Udaleko Kontu-hartzailetza	L01480031
Kudeatzen duen organoa	Amorebieta-Etxanoko Udala	L01480031
Izapidetzen duen unitatea	Kultura	LA0015521

Faktura elektronikoa HORNITZAILEAREN ATARIAN aurkeztuko da eta Udaleko WEB orriaren bitartez iritsiko da.

7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Urtebetetik beherako iraupena duen kontratua denez, kontratu honetan ezarritako prezioak ezin izango dira berrikusi.

8.- BERMEAK

SPKLren 107.1 artikuluaren bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, esleipenduna behin betiko bermea eratzetik salbuetsita dago, SPKLren 25.1.a) 1. artikuluan aurreikusitakoen artean dagoen kontratu pribatua delako, eta kontuan hartzen delako prestazioa prezioa ordaindu aurretik jaso behar diren jarduketak egitean datzala.

Baliozkotze Kod.: 54TYF4JKYZEFLG64LT2NW2PEJ
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 24

9.- KONTRATUA EGIKARITZEA

Administrazioak ezarritako epean eta lekuan egin beharko da jarduketa, preskripzio teknikoen eta administrazio baldintza hauen arabera.

Kontratistari edo horren mendeko pertsonei egotzi dakizkiekeen egintzen edo ez-betetzeen ondorioz kontratuaren garapena egokia izateko konpromisoa hartzen duenean, Administrazioak kontratua burutzeko ordena egokia erdietsi edo berrezartzeko beharrezkotzat jotako neurriak hartzea agindu ahal izango du.

10.- EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK. GUTXIENEKO LAN-BALDINTZAK DATU PERTSONALAK

Lizitazio honen ondorioz sinatuko den kontratuak, laneko segurtasun eta osasun arloan aplika daitezkeen lege, arau eta konbentzioetako xedapenak bete beharko ditu.

Lizitatzaileek kontratuaren xede den jarduera burutzen duten langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa adierazi beharko dute, adjudikaziodun suertatzen badira. Aipamen hori kontratua esleitu aurretik egin beharko da, esleipen-ebazpenean jaso, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Nolanahi ere, identifikatzen den aplikazio-hitzarmen kolektiboak bermatuko ditu, gutxienez, aplikatzekoak diren sektoreko eta lurraldeko hitzarmen kolektiboetan aurreikusitako baldintzak.

Prozedura honetan parte hartzen duten lizitatzaileek lizitazio, adjudikazio eta betearazpen prozesuen ondoriozko datu guztiei erakunde gardentasuna emateko betebeharra onartzen dute amaitu arte.

Adjudikaziodunak, hitzarmen kolektiboan jasotako lansaria ordaindu beharko du, dagokion kategoria profesionalaren arabera, kontratuak irauten duten bitartean. Lansaria ezin izango da aipatutakoa baino baxuagoa izan.

Adjudikaziodunak kontratua egikaritzeko izendatutako pertsonak kontratatu beharko ditu, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan dagokion lanbide-kategorian, eta bete beharreko eginkizun bakoitzerako teknikarien baldintza-agirietan eskatzen den gutxieneko lanbide-kaudimenaren edo enpresak proposamen tekniko gisa aurkezten duen lanbide-kaudimenaren arabera.

Adjudikaziodunak datuen babesaren arloko araudi nazionala eta Europar Batasunekoa bete beharko ditu, eta, gainera, kontratistari ohartaraziko zaio betebehar hori funtsezko kontratu-betebeharra dela.

Esleipendunak funtsezko betebehar horiek betetzen ez baditu, kontratua suntsiarazi egingo da.

11. KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK

Kontratista derrigortuta egongo da lanaren, aurreikuspenaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta higienearen alorretan indarrean dauden lege xedapenak betetzera, kontratatutako zerbitzua ematera atxikita dauden kontratistaren mendeko langileei dagokienez. Administrazioa salbuetsita egongo da hori ez betetzeak ekar dezakeen erantzukizun orotatik eta entitate adjudikaziodunak bere gain hartuko du enpresari izaera.

Baliozkotze Kod.: 54TYF4JKYZEFLG64LT2NW2PEJ
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 24

Adjudikaziodunak bere gain hartuko du hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik haren langileek izan ditzaketen istripuen erantzukizun osoa.

Administrazioak adjudikaziodunari eska diezaioke, edozein arrazoirengatik, kontratu honetan aurreikusitako lanak gauzatzen diharduten langile guztien laneko betebeharrak ongi betetzearekin lotura duen edozein gai egiaztatzea.

Amorebieta-Etxanoko Udalak ez du inolako lotura juridikorik, laneko harremanik edo bestelako loturarik izango adjudikaziodunaren langileekin, ez kontratuaren indarraldian, ezta kontratua amaitzean ere, eta adjudikaziodunaren konturako dira kontratuaren ondorioz sorturiko betebehar, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

12. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

Kontratistaren ardura da zerbitzu-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, SPKLren 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

13. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratu hau interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da, SPKLren 205. art.an aurreikusitako moduan eta SPKLren 207. artikuluan araututako prozedura jarraituz.

Kasu hauetan, kontratazio organoak adostutako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat, hasierako kontratuan ezarritakoaren ehuneko 20 gainditzen ez duenean modu isolatuan edo bateratuan, Balio Erantsiaren gaineko Zerga salbu.

Kasu honetan, kontratuaren aldaketa formalizatu beharko da, behin betiko bermea adostu ostean.

14.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren lagapenari eta azpikontratazioari dagokienez, prestazioaren izaera kontuan hartuta, hau da, jarduera artistiko bat egitea, betearazleen ezaugarri pertsonalak funtsezkotzat jotzen dira kontratua behar bezala gauzatzeko. Horregatik, formalizatutako kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak ezin izango zaizkio hirugarren bati laga, eta ezin izango dira kontratuaren xede diren prestazioak azpikontratatu.

15.- ZEHAPENAK KONTRATISTARI EZ BETETZEARENGATIK

SPKLren 192 artikuluan eta ondorengoetan aurreikusitako zehapen araubidea aplikatuko da.

16.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Kontratu hau amaitzeko kausa izango dira, SPKLko 211 eta 313. artikuluetan ezartzen direnak.

Baliozkotze Kod.: 54TYF4JKYZEFLG64LT2NW2PEJ
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 24

Administrazio baldintza hauen 10. klausulan jasotakoa ez betetzea kontratu hau suntsitzeko berariazko arrazoia izango da, lanak egikaritzeko baldintza bereziei lotuta.

Udalbatzak erabakiko du kontratua suntsiaraztea, interesatuari entzuteko izapidearekin dagokion espedientea aurrera eraman ondoren, eta honako hauek zehaztuko ditu: zerbitzua emateari uztea, zerbitzuari atxikitako enpresaren elementuak konfiskatzea, zerbitzua emango dela ziurtatzeko, eta kontratua berriro esleitzeko lizitazio-deialdia egitea.

17. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari dagozkio honako prerrogatiba hauek: kontratua interpretatzea, kontratua betetzeak sor ditzakeen zalantzak ebaztea, kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratua gauzatzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna aitortzea, kontratuaren exekuzioa etetea, kontratua suntsiaraztea eta suntsiarazpenaren ondorioak zehaztea.

Era berean, kontratazio-organoak ahalmena du kontratistek kontratua gauzatu bitartean egiten dituzten jarduerak ikuskatzeko, SPKLn ezarritako mugen barruan eta bertan ezarritako betekizunei eta ondorioei lotuta, SPKLren 190. eta 191. artikuluetan jasotzen den bezala.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

18.- KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA

Kontratu hau prozedura negoziatuaren bidez esleituko da, SPKLren 170. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 168 a) 2 artikuluan aurreikusitako kasua baita. Baldintza teknikoen agiriko 1.2 atalaren arabera, prozedura hau lizitatzaile bakar batekin egingo da.

Kontratua esleitu aurretik ondokoak negoziatuko dira:

a) Eskaintza ekonomikoa

19.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratatzeko prozedura honetan parte hartu ahal izango dute pertsona natural zein juridikoek, espainiarrak zein atzerritarrak, ahalmen juridiko eta jarduteko gaitasun osoa badute, kaudimen ekonomikoa, finantza kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzen badute agiri honetan aurreikusitako bideak erabiliz eta SPKLren 71. art.an jasotako kontratatzeko debekuen artean ez badaude.

Era berean, euren kabuz edo baimendutako pertsonak ordezkatuta egin ahal izango dute, betiere horretarako egiletsitako behar besteko ahalordearekin. Pertsona juridikoaren ordezkaritzan kide batek esku hartu badu, orduan horretarako gaituta dagoela agirien bidez egiaztatu beharko du. Kasu batean zein bestean, ordezkariaren gain aipatutako kontratatzeko ezgaitasun-arrazoiek eragina izango dute.

Enpresariek, halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki beharko dute.

Baliozkotze Kod.: 54TYF4JKYZEFLG64LT2NW2PEJ
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 17. orrialdea, guztira 24

Europar Batasunekoak ez diren lizitatzaileak direnean, SPKLren 68. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

20.- PROPOSAMENAK AURKEZTU ETA NEGOZIATU BEHARREKOAK

20.1 Proposamenak aurkeztea

SPKLren 170. artikuluan xedatutakoaren arabera, Amorebieta-Etxanoko Udalak eskaintza eskatuko dio kontratuaren xedea gauzatzeko gaitasuna duen enpresa bati.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak honetako baldintzak guztiz onartzen dituela eta administrazioarekin kontratatzeko eskatutako baldintza guztiak betetzen dituenaren aitorpen arduratsua egiten duela.

Ahal den guztietan, kontratazio-organoak idatziz eskatuko dio eskaintza kontratistari.

Proposamena Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren lizitazio elektronikoko tresnaren bidez aurkeztuko da, gehienez ere 14 eguneko epean, gonbidapenak bidaltzen diren egunetik zenbatzen hasita:

https://www.contratacion.euskadi.eus/kpecpe-licitacion_electronica-kontratazioa_es/w32-kpelicel/es/

Enpresa pribatu gonbidatuek ondoko agiriak aurkeztuko dituzte:

1) **Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB),** helbide honetan bete daitekeen ereduaren arabera:
https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es

Dokumentu horrek hasierako dokumentazio hau ordezkatuko du:

a. Eskaintza aurkeztu duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionala.

b. Eskaintzailea pertsona juridikoa denean, eskaintza aurkezten duen pertsonaren NANaren fotokopiaz gain, eratze- edo aldatze-eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutakoa, eta identifikazio fiskalaren zenbakia. Europako Batasuneko Estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrak direnean, nahikoa izango da erregistro profesionalean edo komertzialean inskribapena egiaztatzea, baldintza hori dagokion Estatuko legeriak hala eskatzen duenean.

c. Lizitatzaileak bere izenean jarduten ez badu, edo hori sozietatea edo pertsona juridikoa denean, proposamen ekonomikoa sinatu duenak kontratazio-organoaren aurrean jarduteko behar besteko ahalordea duela eta horrekin bere izenean nahiz kasuan kasuko pertsonaren edo erakundearen ordezkari gisa kontratatzeko behar besteko ahalordea duela egiaztatzeko agiri sinesgarriak aurkeztu beharko ditu.

d. Kaudimen ekonomikoa egiaztatzen duen agiria, Merkataritza Erregistroan edota inskribatu behar diren erregistro ofizialean utziko diren urteko kontuen bidez. Kontu horien bidez egiaztatu beharko da azken hiru ekitaldietan, gutxienez batean, urteko 20.000 euro edo gehiagoko negozio bolumena lortu dela.

Baliozkotze Kod.: 54TYF4JKYZEFLG64LT2NW2PEJ
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 18. orrialdea, guztira 24

e. Baldintza teknikoen agirian aurreikusitako kontzertua egingo den egunean eta lekuan artisten ordezkaritza esklusiboa izateari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

Lizitatzaileen Erregistroko ziurtagiriaren bidez egiaztatzea Aurretik aipatutako agiri guztien ordez, a) atalean jasotakoa izan ezik, ondoko erregistroetatik edozeinek luzatutako ziurtagiria ezarri ahal da: Bizkaiko Lurralde Historikoko Lizitatzaileen Erregistroak; Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialak; Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak; Erkidegoaren sailkapen-ziurtagiria.

Dagokion Erregistrotik aurkeztuko den ziurtagirian jasotzen ez diren inguruabarrei dagokienez, eskatutako egiaztagiriak erantsiko dira.

Edozein kasutan ere, ziurtagiriarekin batera lizitatzaileak egindako adierazpen arduratsua aurkeztu beharko da. Adierazpen horretan ziurtagiri egokian jasotako inguruabarrek inolako aldaketarik jasan ez dutela azpimarratuko da.

f. Atzerriko enpresen kasuan, mota guztietako ordenetako Espainiako Epaitegien nahiz Auzitegien jurisdikzioaren mende jartzeko adierazpena, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitezkeen intzidentziei begira, eta, hala denean, jurisdikzio-foruari uko eginda.

g. Enpresa- edo lanbide-gaikuntza eskatzen bada, enpresa- edo lanbide-gaikuntza hori egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

Dokumentazio hori, halabeharrez, adjudikaziodun gisa proposatutako eskaintzaileak aurkeztuko du, kontratua esleitu aurretik.

Era berean, Administrazioak adierazitako dokumentazioa aurkezteko eskatu ahal izango die lizitatzaileei, prozedura behar bezala amaituko dela bermatzeko, eskaintza ekonomikoa jasotzen duen gutun-azala ireki aurretik. Kasu horretan, horretarako eskatutako lizitatzaileek adierazitako epean aurkeztu beharko dute eskatutako dokumentazioa, hau da, gehienez ere hamar egun balioduneko epean.

Aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak edo omisioak badaude, gehienez hiru egun balioduneko epea emango da akatsa zuzentzeko.

2) I. Eranskin gisa agertzen den ereduari egokitutako **proposamen ekonomikoa.**

20.2 Negoziazioa

Proposamenak aurkeztu ondoren, negoziazio-txanda bat egingo da prozeduran parte hartzera gonbidatu diren lizitatzaileekin, negoziazio-alderdi hauei dagokienez:

a) Proposamen ekonomikoa

Negoziazioa, ahal dela, bitarteko elektroniko edo telematikoen bidez egingo da. Negoziatu beharreko alderdiei buruzko proposamenak emandako epean ez jasotzeak ez du eragotziko prozedurak aurrera jarraitzea. Kasu horietan, negoziatu beharreko alderdiei buruzko proposamenak jasotzeko epea amaitzean, proposamen bat egindakotzat hartuko da, aurkeztutako dokumentazioan adierazitako baldintzetan.

Baliozkotze Kod.: 54TYF4JKYZEFLG64LT2NW2PEJ
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 19. orrialdea, guztira 24

Lizitatzaile bat baino gehiago aurkezten bada, prozesuan interesdun guztiek tratu bera jasotzen dutela zainduko da, eta, bereziki, gainerako lizitatzaileei ez zaizkie jakinaraziko lizitatzaile bakoitzaren eskaintzen berezitasunak edo abantailak. Esleipen-irizpideen kalifikazioa eta negoziazio-txanda hastean lizitatzaile bakoitzak negoziazioaren xede diren alderdiei dagokienez duen hurrenkera soilik jakinaraziko dira.

21. ESKAINTZEN SAILKAPENA, ADJUDIKAZIOA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

21.1. Eskaintzen sailkapena.

Egindako proposamenak ikusita, parte-hartzaileekin egin beharreko negoziazioak amaituta, eta aldez aurretik bidezko txosten teknikoak eginda, kontratazio-organoak handienetik txikienera sailkatuko ditu aurkeztu diren eta neurriz kanpokotzat edo anormaltzat jo ez diren proposamenak. Horretarako, kontuan hartuko ditu pleguan adierazitako esleipen irizpideak eta eta negoziatu diren gaiak, egoki iritzitako txosten teknikoak eskatu ahal izango direlarik.

Kontratazio organoak eskaintzarik onena egin duen lizitatzaileari eskatuko dio, hamar egun balioduneko epean, eskakizuna jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, ondoren zehazten diren ziurtagiriak aurkezteko:

- Dokumentazio administratiboa, zeinaren hasierako aurkezpenak Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB) ordezten baitu.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatzen duen agiria.
- Hala dagokionean, kontratua esleitzeko zenbatekoaren %5eko behin betiko bermea eratzea (BEZ kanpo).
- Azpiegitura informatikoa erabiltzen den zerbitzuak emanez gero, zerbitzariak non kokatuko diren eta zerbitzari horiei lotutako zerbitzuak nondik emango diren adierazten duen adierazpena.

Adierazitako epean eskaera ez bada behar bezala betetzen, lizitatzaileak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Kasu horretan, eskaintzen sailkapen ordenari jarraituz, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari.

21.2 Kontratuaren adjudikazioa

Kontratazio-organoak eskatutako dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean kontratua esleituko du. Halaber, esleipena kontratatzailaren profilean argitaratuko da hamabost eguneko epean.

Kontratazio-organoak esleitu gabe utzi ahal izango du, kontratazio mahaiak hala proposatzen badu, baldin eta eskaintza edo proposamen onargarririk ez badago, agirian jasotako irizpideak aintzat hartuta.

Kontratua esleitzea erabaki ondoren, ebazpen arrazoitu bidez, lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da, SPKLren 151.2 artikuluan aurreikusitako informazio eta betekizunekin.

Baliozkotze Kod.: 54TYF4JKYZEFLG64LT2NW2PEJ
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 20. orrialdea, guztira 24

21.3 Kontratua formalizatzea

Kontratua formalizatzean burutuko da. Kontratua esleipenaren jakinarazpena egin eta hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da.

Ezin izango da kontratua gauzatu, formalizatu aurretik.

Esleipendunak, arestian aipatutako epearen barruan, kontratua legeztatzeko administrazio-dokumentua sinatu beharko du, eta horri baldintza teknikoen eta administrazio-baldintzen agiria erantsiko zaio.

Enpresa adjudikaziodunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu ez bada, lizitazio oinarri den aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, BEZa kanpo, zehapen kontzeptuan, eta, lehenengo eta behin, behin betiko bermearen aurka egingo da eraginkor, eratuz gero, SPKLren 71.2.b) artikuluan ezarritakoa gorabehera.

Kontratistak aurkeztutako eskaintzak kontratu-balioa du, hobekuntzei, proposamenei eta kontratuaren burutzapenean eragina izan dezaketen bestelako alderdiei begira, ezarritako balorazio irizpideen arabera, kontratuaren esleipenerako erabakigarriak izan direnak.

Kontratua formalizatuta jasotzen duen agiria beti administrazio-agiria izango da, eta erregistro publiko orotan sartzeko baliozko titulua izango da Bestalde, kontratua eskritura publikoan formalizatuko da, betiere kontratistak hala eskatu badu, eta horrek egilespenaren ondorioz sortutako kostuak ordainduko ditu. Kasu honetan, kontratistak baimendutako kopia bat eman beharko dio kontratazio organoari.

Kontratuen formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, kontratua burutu eta gehienez ere hamabost eguneko epean argitaratu beharko da kontratatzailearen profilean.

III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

22.-IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Baldintza-agiri honetan oinarrituta egiten den kontratua administratiboa izango da, eta bertan aurreikusten ez den guztirako SPKLn, APKEOn eta, hala badagokio, administrazio publikoen kontratazioari aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedatutakoa beteko da.

Administrazio-klausula partikularren agiri hau eta espedienteari lotutako gainerako agiri teknikoak bat ez badatoz, agiri honetan xedatutakoa nagusituko da.

23.- DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratu hau betearazteko orduan, datu pertsonalak babesteari dagokionez, arau hauek bete beharko dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko EB/2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (DBEO) indargabetzen duena, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Digitalen Babesari buruzkoa.

Baliozkotze Kod.: 54TYF4JKYZEFLG64LT2NW2PEJ
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 21. orrialdea, guztira 24

Kontratistak, kontratu hau egikaritzeko, datu pertsonalak tratatu behar dituenean tratamenduaren arduradunaren kontura:

a) Datu horiek lagatzeko helburua ondokoa izango da: adierazpen artistikorako kontratua gauzatzea.

b) Kontratista izango denak datuen babesaren arloko araudi nazionala eta Europar Batasunekoa bete beharko ditu.

c) Adjudikaziodun enpresak kontratua formalizatu aurretik aitorpen bat aurkeztu beharko du, bertan adieraziz zerbitzariak non kokatuko diren eta horiei lotutako zerbitzuak nondik emango diren.

d) Adjudikaziodun enpresak kontratuaren bizitzan zehar, aurreko c) letran aipatutako aitorpenean emandako informazioan gerta daitekeen edozein aldaketa komunikatu beharko du.

e) Lizitatzaileak eskaintzan adierazi beharko du zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko asmoa duen, eta hori egiteko agindua jasoko duten azpikontratisten izena edo enpresa profila, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzei erreferentzia eginez definitutakoa.

Klausula honetan jasotako betebeharrak funtsezkotzat jotzen dira, eta horiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake, SPKLren 211. artikuluan jasotakoaren arabera.

24.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratuen interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sortzen diren auziak kontratazio-organoak ebatziko ditu, eta haren ebazpenek administrazio-bidea agortuko dute.

Kontratua prestatzeari eta esleitzeari buruzko auzigaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende egongo dira; kontratu pribatuaren ondorioei, betetzeari eta azkentzeari buruz sortzen diren eztabaidak, berriz, jurisdikzio zibilaren mende egongo dira. Hala ere, alderdiek beren auziak arbitrajearen mende jartzea erabaki dezakete, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

Lizitatzaileek SPKLn eta administrazio-prozeduraren araudi orokorrean xedatutako aurkaratze-bideak izango dituzte.

25.- GARDENTASUNA

Adjudikaziodunak beharrezkoak diren datu edo agiri guztiak eman beharko dizkio Amorebieta-Etxanoko Udalari, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen III. Kapituluan bildutako preskripzioak behar bezala betetzeko, baita Eusko Legebiltzarraren 2/2016 Legearen 49.4 artikulua betetzeko ere, Euskadiko toki erakundeei buruzkoa.

Eskatutako datu edo dokumentuak lehen aipatutako lege xedapenak betetzeko beharrezko denbora tartearekin emango dira; horretarako igorriko den errekerimenduan

Baliozkotze Kod.: 54TYF4JKYZEFLG64LT2NW2PEJ
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 22. orrialdea, guztira 24

horren berri emango da.

Eskatutako dokumentuak edo datuak entregatzea atzeratuz gero, edo entregatzen ez badira, SPKLren 192. eta 193. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz zehapenak jaso ditzaketen jokabide gisa hartuko dira.

Baliozkotze Kod.: 54TYF4JKYZEFLG64LT2NW2PEJ
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 23. orrialdea, guztira 24

I. ERANSKINA: PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Nik, …… jaunak/andreak, …… helbidean bizi naizen honek, …… NAN zenbakidunak eta …… telefono-zenbakidunak, erabateko gaitasun juridikoarekin eta jarduteko gaitasunarekin, norberaren izenean (edo ……. enpresaren ordezkari gisa), Amorebieta-Etxanoko Udalak **"LATZEN" TALDEAREN KONTZERTUA 2026KO KARMENAK ETA SANTANATXU JAIETARAKO** kontratatzeko deitutako lizitazioaren berri izanda, ondokoa aitortu dut:

1.- Jarraian adierazten den prezioarengatik zerbitzua emateko konpromisoa hartzen dut, eta prezioak kontzeptu guztiak barne hartzen dituela ulertu beharko da, zergak, gastuak, tasak eta edozein zerga arloko arielak, kontratistaren industria etekina barne, baldintza teknikoen agirian berariaz egindako salbuespenekin:

PREZIOA	BEZ (%21)	GUZTIRA

2.- Baldintza teknikoen agiria, administrazio baldintzen agiria eta kontratu hau eraentzen duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditudala, guztiak onartu eta beteko ditudala.

3.-Ordezkatzen dudan enpresak berau ireki, instalatu eta funtzionatzen egoteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebehar guztiak betetzen dituela.

……..n, 2026ko .....aren .....(e)(a)n

Sin.:

Baliozkotze Kod.: 54TYF4JKYZEFLG64LT2NW2PEJ
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 24. orrialdea, guztira 24